

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Foru Gobernuak gizarte-larrialdiko laguntzen deialdia egingo du ostegun honetan 2 milioiko aurrekontuarekin

*Helburua da etxebizitzako, ur eta energia hornidurako, eta nutrizio nahiz osasuneko oinarrizko beharrak asetzeko ordainketak erraztea*

Asteazkena, 2016.eko ekainak 1

Nafarroako Gobernuak bihar, osteguna, ekainak 2, toki-erakundeetarako diru-laguntzen deialdia egingo du, haiek udalerrian erroldatutako pertsoneri eta familiei gizarte-larrialdiko laguntzak eman ahal diezazkieten.

2 milioi euro erabiliko dira kontzeptu horretan. Hari esker, pertsona edo familia-unitate onuradunek urtean gehienez 3.000 euro jaso ahalko dute premiaz eta berehala beraien etxebizitzako, ur eta energia hornidurako, eta nutrizio nahiz osasuneko oinarrizko beharrak asetzeko ordainketak egiteko (laguntzak zortzi egunetan jasotzen dira, batez beste).

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak Foru Gobernuari deialdiaren irizpide nagusien berri eman dio gaurko bileran; Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako titularrak diren 45 toki-erakundeetarako dira (udalak eta mankomunitateak).

Laguntza horiek iragan urrian ezarri zituen estreinakoz Nafarroako Gobernuak, pobrezia-aren gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko aparteko neurrien barnean. Lehenengo deialdi horretatik 9.604 pertsona baliatu ziren, eta kopuru horren heren bat (3.709) adingabeak ziren.

### Berrikuntza nagusiak

2015arekin alderatuz, berrikuntza nagusi modura [deialdiak](#) diru-sarreraren beste muga bat ezartzen du familia-unitate bakoitzerako kide-kopuruaren arabera, familia guztientzako zenbateko beraren orde. Gainera, diruz lagundu daitezkeen kontzeptu modura sartzen dira: ur hotzaren hornidura (estolderia, zabor-biltzea...) eta gizarteratzea erraztuko duten jarduera sozio-sanitarioak. Ura eta energiaren oinarrizko horniduretarako zenbatekoa 600etik 800era handitzen da ere.

Azkenik, nutrizio eta osasunaren atalean bereizitako urteko gehieneko zenbateko bat ezartzen da familia-unitateko kide-kopuruaren arabera, 1.220 euro gehienez 4 pertsona edo gehiagoko familientzat. Eta



Laguntzen helburua, beste kontzeptu batzuen artean, eguneroko elikadura bermatzea da.

800 euro muga jartzen da ere, hezkuntzako eta gizarteratze-laneratzeko laguntzetan

Gainera, kudeaketa hobetzeko asmoz, familia-unitatearen definizioa zehaztu da, gizarteko bazterkeriako errentaren antzekoa izango dena, pertsona onuradunen baldintzak hobeto identifikatzen dira, eta diru-laguntzen helburua zehatzago definitzen dira.

### **Larrialdiko laguntzak eskuratzeko baldintzak**

Toki-erakundeek eskainitako laguntza-programek honako baldintzak hauek bilduko dituzten egoiliarren beharrak beteko dituzte: 18 urtetik gorakoak izatea, erreferentziazko bere gizarte-zerbitzuko oinarrizko zonaldeko udalerrietako batean erroldatuta izatea, berariazko gastuen ordainketa zailtzen duen egoera izatea (aparteko izaera), beharrezkoak direnak gizarteko bazterkeria-egoerak ekidin edo arintzeko, eta familia-unitateak hilean ondorengo eskalak baino baliabide ekonomiko txikiagoak izatea:

#### **Kide-kopurua                      Gehieneko diru-sarrerak, hilean**

1	1.310,40
2	1.572,48
3	1.703,52
4	1.834,56
5 edo gehiago	1.956,60

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak honako hauek dira:

#### **- Etxebizitza.**

Urtean 2.000 euro gehienez familia-unitate bakoitzeko honako hauek ordaintzeko: etxebizitzaren alokairua, hipotekako kuota, partekatutako etxebizitzako gela edo beste ostatu-mota bat (pentsioa, hotela...). Gainera, alokairuko etxebizitza berriaren kontratua diruz lagunduko da, hasieran aparteko gastua eskatzen duenean.

#### **- Oinarrizko hornidurak.**

Ur hotzaren banaketaren eta beste zerbitzu batzuen gastuak (estolderia, zabor-bilketa...), eta elektrizitate, gas, berogailu eta ur bero zentral eta beste erregai batzuen gastuak (sutako egurra, ikatza, berogailurako gasolioak...). Bi kontzeptuengatik guztira 800 euro emango dira familia-unitate bakoitzeko.

#### **- Nutrizioa eta osasuna.**

Diruz lagunduko dira eguneroko elikadurako gastuak, bai eta norberaren higiena eta etxekoa ere: 500 euro pertsona batentzat eta 1.220 lau edo gehiagorentzat.

Atal honen barnean sartzen dira ere, osasun-izaerako lekualdatze edo egonaldiak, eta osasun-publikoaren sistemak estali gabeko farmazia-gastuak, 500 euro gehienez pertsona bakoitzeko.

Onuradunek, gainera, gehienez 500 euro eskuratu ahalko dute beharrezkoak diren elementuak erosteko funtzionamendu pertsonal integratu baterako, zentzumenezkoak barne (entzumena eta ikusmena).

Azkenik, berrikuntza modura, beste jarduera sozio-sanitario batzuk diruz lagunduko dira, eta haiei esker, gizarteko bazterkeria-egoerak ekidingo dira eta prozesu integratzaileak erraztuko (500 euro pertsona bakoitzeko).

### **9.000 onuradun baino gehiago 2015ean**

Aipatu den moduan, laguntza horien [lehenengo deialdi](#) bat iazko urrian deitu zen, eta 3.240 familia-unitateko 9.064 pertsona baliatu ziren deialdi horretaz (3.079 adingabe). Diru-laguntzen aurrekontu orokorra 1,6 milioi euro izan zen, eta handik 1,5 Gobernuak jarri zuen; gainerakoa, toki-erakundeek.

Gastu handiena, 960.136 euro (% 57) etxebizitzari edo oinarrizko horniduren ordainketari lotutako

beharretara bideratu zen, energiara bereziki. Bestalde, nutrizio eta osasun gastuetara % 26, hezkuntza eta gizarteratze-laneratzera % 5,7 eta funtsezko beste behar batzuk estaltzera, % 11,4.

Bere garaian egindako inkestaren arabera, toki-erakundeek % 93k deialdia modu positiboan baloratzen dute, eta tresna baliozkotzat eta positibotzat jotzen dute gizarteko bazterkeriako egoeren aurka borrokatzeko.